

Teodoro Hernandorena

XIII. Ipuin Lehiaketa

© Zizurkilgo Udala

Lege gordailua: SS -292-2015

Fotokonposaketa eta inprimaketa: **antza** komunikazio grafikoa

A maila

- 1go saria: **Zorte txarreko zizarea**
Asier Oyarzabal Aranguren 7
2. saria: **Lauraren izarra**
Andrea Marquez Carrasco 9

B maila

- 1go saria: **Amore**
Aimar Murua Poza 10
2. saria: **Txango nahasia**
Axier Tejeria Larrarte 13

C maila

- 1go saria: **Eskizofrenia**
Leire Arteché Cerrato 15
2. saria: **Zaporerik gabeko malkoak**
Itsaso Aizpurua 19

D maila

- 1go saria: **Muxu bat ama**
Nagore Muriel 25
2. saria: **Berokiaren errautsak**
Nerea Beobide 29

E maila

- 1go saria: **Arnasa hartzen**
Ixiar Irulegi Garmendia 33
2. saria: **Nik hegan egin nahi dut**
Paule Abrego Candelario 39
2. saria: **Ikusten nuen**
Urtz Zubiaurre Otamendi 47



Hitzaurrea

.....

“Ez dok hamahiru” taldeak euskal kulturaren arrasto nabaria utzi zuen, eta Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketaren XIII. edizio hau ere oso emankorra izan da, bai parte-hartzaile kopuruaren aldetik, bai aurkeztutako lanen kalitatearen aldetik ere. Hortaz, gu behintzat, “badok hamahiru” esateko moduan gara, eta izan daitezela gehiago ere, jasotako erantzunak hori eta gehiago ere merezi du eta.

Argi geratu da, horrela, Teodoro Hernandorenak ereindako haziak eman dituela fruituak, eta kimu berriak ere sortzen ari direla urtetik urtera. Udaberri bete-betean gauden honetan, jarrai dezala zuhaitz horrek sendotzen eta indarrak hartzen, Zizurkilgo herriari ondo etorriko zaio eta euskal kultura arnasberrituta egotea eta etorkizuneko belaunaldiak horrelako sormen aberatsa izatea.

Urtero bezala, ezin ditugu ahaztu lehiaketan parte hartu duzuenon guraso eta lagunak, irakasleak eta epaimahaiko kideak ere. Mila esker denoi, zuek guztiok gabe ezinezkoa izango baitzen heldu garen tokiraino iristea.

Aurten inoizko marka guztiak hautsi ditugu; izan ere, 408 ipuin jaso ditugu. A eta B mailako gaztetxoek egindakoak izan dira 248, eta C, D eta E mailako helduagoenak 160. Bost maila horietako 11 irabazleen lanak bildu ditugu liburuxka honetan.

Urtero bezala, aurten ere epaimahaikideak punta-puntako idazleak izan dira. Hain zuzen, Ixabel Millet eta Joseba Aurkenerena ibili dira A eta B mailetako parte-hartzaileen lanak irakurtzen eta aztertzen, eta Maite Toledo eta David Tijero, C, D eta E mailetakoekin. Eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Ipuinek amets egiten laguntzen digute, ezin irudikatuzko munduetan murgiltzen, eta, bide batez, baita irudimena lantzen ere. Emozioz beteriko pasarte txiki horiek barru-barruraino iritsi ohi zaizkigu, barre egina-raziz, malkoak isurtzera bultzatuz edo hausnarketa egitera gonbidatuz.

Jarri patxadaz, ahaztu buruan jiraka eta bueltaka dituzun arazo txikiak, eta murgil zaitez mila abenturatan, ez zaizu damutuko eta. Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila zure etxeko egongelan.

A handwritten signature in black ink, featuring a large, stylized initial 'J' and 'L' that are intertwined, with a horizontal line extending to the right.

Jose Mª Luengo Zapirain
Zizurkilgo alkatea



■ A. maila • 1. saria

ASIER OYARZABAL ARANGUREN

Zorte txarreko zizarea

Baziren behin zizare pila. Denek zorte txarra izaten zuten; batez ere, Kraslobaki izeneko zizareak. Herria ez zeukaten lur azpian, parke baten ondoan baizik.

Egun batean, Kraslobaki buelta bat ematera joan zen. Baina, bat-batean, ume batek Kraslobaki hartu eta uretara bota zuen. Itotzen ari zela, arrain batek Kraslobaki irentsi zuen, gero arrantzale batek arraina arrantzatu eta arrandegi batera eramán zuen. Ondoren, andre batek arraina erosi eta etxera eramán zuen. Arraina moztera zihoala, Kraslobaki arrainaren ahotik atera zen. Kasualitatea etxe horretan katu bat egotea! Orduan katuak Kraslobaki irentsi zuen. Geroxeago, katua paseatzera atera zen parkera, eta parkean botaka egin zuen, Kraslobakik urdailean kilimak egiten zizkiolako.

Orduan, Kraslobaki katuaren ahotik atera zen, eta arazorik gabe iritsi zen bere herrira. Hurrengo egunean, Kraslobakik Udalarí esan zion herria beste leku batean egin behar zela, eta 19:00etan plazan biltzeko herria non eraiki erabakitzeko. Jendea pentsatzen aritu zen. 19:00ak iritsi ziren, eta jende piloa plazan bildu zen, herria non eraiki erabakitzeko.

Leku pila atera ziren: errepidean, etxe handi bateko komunean, kazuela erraldoi batean...

Azkenean erabaki zuten lur azpian egingo zutela herria. Esan eta egin, lur azpian eraiki zuten herria.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN, ETA ATERA DADILA TEODORO HERNANDORENA LEHIAKETAN.

|Perikito



■ A. maila • 2. saria

ANDREA MARQUEZ CARRASCO

Lauraren izarra

Behin batean, Laura bere amatxorekin bizi zen herri txiki batean.

Basoko animalia lagunak askotan etortzen ziren Laurarengana jolastera.

Asko maite zuten, oso dibertigarria zelako.

Arratsalde batean, lagunekin jolastera zihoala, parkean izar distiratsu bat aurkitu zuen, eta etxera eraman zuen.

Lurak izarra eskolara eraman zuen, baina izarrari barre egiten zioten, punta puskatuta zuelako. Futbolean baloi bat bezala ere erabili zuten.

Gelara sartu zirenean, izarrak zerura alde egin zuen.

Egun horietan, Laura triste eta haserre zebilen.

Baina gau batean, izarra etorri zen ipuin bat kontatzera, eta gero berriro joan zen zerura. Handik aurrera, gauero egoten ziren Laura eta izarra ipuin artean eta kontu kontari.

Sekretu hori ez zuen inork jakin

|Margarita



■ B. maila • 1. saria

AIMAR MURUA POZA

Amore

Bohdan 12 urteko ijito Україна (Ukrania) bat da. Euskal Herrira etorri da, bere herrian bizi den gatazkatik alde eginez. Bohdanek ilea ikatza bezain beltza du, azal kolore marroia, eta begiak bi esmeralda bezalakoak, berde eta distiratsuak ditu, ahoko hortzak zuriak dira eta beti darama aurpegi horretan irribarre zoriontsu eta polit bat. Bohdanek beti txandal bera darama jantzita, jertsea beti zikin eta tomate orbanez, koipez... galtzak zulatuta eta poltsikoak lehertuta. Zulatutako zapatiletatik, azkazalak beltz ikusten zaizkio. Benetan itxura berezia du. Dutxa bat ere eskertuko luke eta genuke, darion usain mikatz hori ekiditeko, baina, hala eta guztiz ere, Bohdan oso jatorra da. Saiatzen da lagunak egiten. Dena den, desberdina denez, nekez lortzen du. Ikasketetan nahiko alferra da. Pilota, ordea, gustukoa du, eta bikain jokatzen du, nahiz eta gehiegitan bakarrik jolasten duen.

Ikastolan sartzeko ordua heldu bitartean, Bohdan neska-mutil gehienekin saiatzen da lagun egiten, baina ez du lortzen. Futboleari ari den mutiko ilehori bat, azal zuri-zurikoa, justu bere kontrakoa, gerturatu zaio Bohdani, eta kasualitatez lagunak egin dira. Beti joaten dira eskupilotan jolastera, eta bikain pasatzen dute biek elkarrekin, baina arazo bat

dute: mutiko horren koadrilakoek ez dute Bohdan onartzen. Nahiz eta saiatu, ez dute lortzen taldekidea izatea. Gure mutikoa oso penatuta joaten da etxera, pentsakor. Bere aitak, horrela ikusita, arduraturik, behin galdetu dio:

– Zer duzu hain penatuta etortzeko?

– Ez dut lortzen Bohdan taldekidea izatea. Uffff, amore eman beharko dut!

– Amore! –esan du aitak.

– Bai, amore.

– Inoiz ez da amore eman behar. Egiatan gertatutako pasadizo bat kontatuko dizut. Edurnerena da.

– Edurne?

– Bai, badakit nor den Edurne.

– Hamaika urte zituenean, minbizi sendaezina iragarri zioten, eta medikuek amore eman zuten. Baina Edurnek bizitzeko gogo handia zuen, eta, jarrera baikor batez, minbiziari aurre egiteko gai izan zen. Gaur egun, minbiziaren aurkako mediku esanguratsuenetakoa da.

– A bai!...

Aitak kontatutakoaren ondoren, zer pentsatua izan zuen gure lagunak.

Hurrengo goizean, Bohdani kontatu zion aitak esandakoa. Elkarri besarkada handi bat eman zioten, eta sekula ez zutela amore emango erabaki zuten. Zoritxarrez, Bohdanek Euskal Herritik Errioxara joan behar izan zuen, familia kontuak tarteko, eta bi lagunak banatu egin ziren.

Hamabost urte igaro ziren. Gure mutikoa, ikertzaile famatu bihurturik, pilota partida bat ikustera joan zen Donostiako Atano III.a pilotalekura. Banakako Euskal Herriko Txapelketa. Zur eta lur geratu zen gure iker-tzailea. Bohdan pilotari profesionala zen, eta hantxe zegoen, beroketa saioan, zuriz jantzita, gerriko urdina zuelarik. Partida borrokatua izan

zen, eta emaitza ezin hobea: BOHDAN TXAPELDUN! A ze txalo zaparradak, animo oihuak eta besarkadak. Orain bai, nahiz eta ijitoa izan, denek nahi zuten bere taldekidea izan, baina... denak baztertu zituen gure ikertzaile famatua ikusi zuenean. Hori da aurpegia geratu zitzaiona gure Bohdani. Pilotazaleak begira zituztelarik, biek benetako besarkada sakon bat eman zioten elkarri, 11 urte zituztenean emandakoa bezala. Begiak malkoz beterik, Atanotik elkarrekin joan ziren.

EZ AMORE EMAN!!!!



■ B. maila • 2. saria

AXIER TEJERIA LARRARTE

.....

Txango nahasia

- Amaia, etorri gosaltzera!
- Bai, ama, oraintxe noa.

Kaixo, ni Amaia Aizpitarte naiz, 6. mailako neska bat. Ile luze eta argia dut, begi urdinak eta ez naiz batere altua, eta aurpegiz... Aurpegiak ez du garrantzirik. Goizeko 9:00ak dira, eta autobusa 9:30ean etorriko da. Gainera, gaur ez goaz eskolara beti egin ohi dugun moduan, gaur Irati basorantz goaz txangoa egitera. Gosaldu bezain laster, jantzi eta motxila prestatu dut. 9:25erako prest nengoen, eta handik gutxira autobusa etorri da. Autobusera igotakoan, Irati basorantz abiatu gara zuzenean. 10:00ak ingururako bertan geunden Irati basoko bihotzean. Autobusak gerizpe handi baten azpian aparkatu du. Ondoren, irakasleak egin beharreko bidea azaldu digu, eta harantz abiatu gara, alegia, Baliurreko urtegirantz.

Bidea oso polita da, nonahi lore polit eta ederrak daude, eta haien inguruan era guztietako xomorrotxoak: tximeletak, kakalardoak, sugandilak, kilkerak etab. Mota guztietako zuhaitzak ere ez dira falta, beraien adarretan isiltzen ez diren txoriak eta janaria biltzen ari diren urtxintxak. Denak

taldean goaz irakaslearengandik urrundu gabe. Noizean behin, zer edo zer esplikatzeke geratzen gara. Oraingo honetan, perretxiko batzuez hitz egin digu. Nora (nire lagunik onena) eta ni perretxiko zuri eta gorri horiei begira geratu gara, besteek bidea jarraitu dutela konturatu gabe.

Gelakideak han ez zeudela ikustean, Nora eta biok bidea jarraitzen hasi gara noraezean. Aurrera eta aurrera jarraitu dugu, baina ez dugu beraien arrastorik aurkitu. Halako batean, bidegurutze batera iritsi gara, seinالاتu gabe dagoen bidegurutze batera. Guk ez genekien norantz hartu, eta, apurtxo bat eztabaidatu eta gero, ezkerrean joan gara.

Bide estu bat dago, animalia txikiez josia. Bidea geroz eta estuagoa eta narrasagoa da. Gainera, landaredia ere gutxitzen doa aurrera goazen heinean. Tipi-tapa jarraitu dugu, eta, halako batean, bidea amaitu da. Beno, amaitu ez, baina bidea jarraitzeko erortzeko moduan dagoen zubi zahar itsusi bat zeharkatu behar dugu. Ni Noraren moduan prest nago hori pasatzeko. Horregatik, batere eztabaidatu gabe pasa egingo garela erabaki dugu. Lehenik ni hasi naiz, eta hanka lehenengo oholean jarri dudanean, krak! Egur zatia bi zatitan apurtu da, eta behean zegoen erreka erori da. Nik ikaragarritzko sustoa hartu dut, baina Jainkoari eskerrak ez naiz erori.

Hori pasa eta gero ez dut uste berriz pasatzen ausartuko naizenik. Horregatik, atzera joan gara etorri garen bidetik. Laster, bidegurutzera iritsi gara. Leku horretan, aurrekoan bezalaxe, norantz joan ez genekielako geratu gara, baina Noraren orientazioari esker eta aurrekoan ikusita-ko perretxikoen laguntzaz, autobuserako bidea hartu dugu. Apurtxo bat ibili ondoren, autobusera heldu gara. Hantxe zeuden gure ikaskide eta irakasleak ertzain batzuen alboan gure bila abiatzeko prest.

Gu ikusi bezain laster, saltoka eta brinkoka hasi dira. Guk, berriz, ez genekien zer egin, eta pozaren pozez negar malkoak atera zaizkigu. Ahalik eta lasterren autobusera igo, eta gure herrirantz abiatu gara zuzenean. Bidean pasa zaizkigun gertakari guztiak kontatu dizkiegu, eta besteak aho zabalik utzi ditugu. Gaur gauean lo seko egin dut, gaur pasa zaigun gertakaria eta gero.

| *Todoterrenoa*



■ C. maila • 1. saria

LEIRE ARTECHE CERRATO

Eskizofrenia

Bazen behin ilargi izeneko neska bat. Hamalau urte zituen. Bere adinerako altu samarra zen. Ilea luzea eta kizkurra zeukan, ikatza bezain beltza. Ahizpa bat zeukan, bera baino zortzi urte handiagoa, beraz, hogeita bi urte zituen. Bere ahizpa ez zen Euskal Herrian bizi, eta, horregatik, ilargi amarekin bakarrik bizi zen. Bere gurasoak bananduta zeuden. Ilargiren aita Ingalaterran bizi zen, eta bederatzi urte igaro ziren azkena ikusi zuenetik.

Ilargi ez zen hamalau urteko beste neskak bezalakoa. Gaixotasun bat aurkitu zioten bost urterekin. Gaixotasun horrek pentsamendu arra-roak izatea eragiten zion, eta eskizofrenia izena zuen.

Beste eskoletan ez zuen lagun askorik eduki, eta, horregatik, eskola berrira hasten zen.

Ilargik bazekien gaixo zegoela, baina bere gaixotasunean ez zela dena txarra pentsatzen zuen. Bere gaixotasunari esker, berak bakarrik ikus zezakeen lagun bat zeukan: Maite. Maiteri dena kontatzen zion, baita bere amari ere, baina lagunari gehiago.

Eskolara iristean, bere gelara joan zen Ilargi. Bazekien lagunik ez zuela edukiko, denek arraroa zela pentsatzen zuten eta. Jolas-ordua iritsi zenean, Ilargi gelan gelditu zen. Orduan mutiko bat agertu zen. Ilea beltza zuen, baita begiak ere. Azal oso argia zeukan, eta haserre zegoela ematen zuen. Ilargik beldurra sentitzen zuen, bazekien ez zela benetako mutila. “Imajinazioa da” errepikatzen zion behin eta berriz bere buruari. Ilargik ez zekien zer egin. Mutila hor zegoen, gel-dirik, berari begira. Urduri bada ere, Ilargi mutilari hitz egitera aurreratu zen:

– Kaixo... Zer nahi duzu?

– Informatzera nentorren –esan zion mutikoak. Bere ahotsa beldurrezko pelikuletakoa bezalakoa zen, eta horrek beldur gehiago eragin zion Ilargiri.

– Informatzera? Zertaz? –galdetu zion.

– Arraroa zarela jakin dezazun. Inork ez zaituela maite esan nahi nizun –azaldu zion mutilak.

Ilargi triste jarri zen, eta negargura sartu zitzaion. Azkenean, negarra egiten bukatu zuen. Mutilari begiratu zion, begiak malkoz beteta. Mutilak irribarre bat bota, eta joan egin zen. Ilargi pentsakor gelditu zen. Egia izango ote zen? Norbaitek maite ote zuen? Bere amarentzat karga bat izan zen beti, bere gaixotasuna zela-eta lan asko ematen zion. Eskolako txirrinak bere pentsamendutik atera zuen. Laster, ikaskideak bueltan ziren. Ilargik isilik entzun zituen andereñoaren azalpenak. Etxera bueltatzean, amak galdetu zion:

– Zer moduz eskolan, polita?

– Oso ondo –erantzun zion, irribarre faltsu batekin, eta bere logelara joan zen.

Ez zion ez Maiteri ezta bere amari ere ezer esan mutikoari buruz.

Egunero gauza bera gertatzen zitzaion. Baina esaten zizkion gauzak gero eta okerragoak ziren. Egun batean, Ilargi mahai baten azpian sartu zen jolas-ordua iristean, mutikoak ez aurkitzeko. Mahaitik burua

atera zuen, ea mutila zegoen ikusteko. Bat-batean ahots bat sumatu zuen ondoan:

– Zertan ari zara hemen azpian? –galdetu zuen ahotsak. Ilargik burua pixkanaka biratu zuen, eta betiko mutila aurkitu zuen. Ilargik ez zuen ezer esan. Mutilak hitz egiten jarraitu zuen:

– Horrela hobeto zaude, hitz egiten duzun bakoitzean besteei kalte egiten baitiezu.

Hori esan eta gero joan egin zen. Ilargi pentsatzen gelditu zen, eta berak inori minik eman nahi ez zionez, aurrerantzean ez hitz egitea erabaki zuen.

Eguna normal bukatu zuen. Azkeneko orduan, Ilargi bere koadernoan idazten zegoen, beraz, andereñoari ez zion kasurik egin. Gauza bat bakarrik entzun zuen: “Bi aste barru, neska berri bat etorriko da eskolara. Espero dut harrera ona egitea.”

Ettxera bueltatu zen. Amak “Kaixo” esan zion, baina Ilargik ez zion ezer esan. Amak “Zer moduz zaude?” galdetu zion, baina neskak ez zion ezer esan. Aste bat igaro zuen hitz egin gabe. Ilargi triste zegoen. Larunbatean, psikologo batengana eraman zuten. Han, bai eta ez idatzirik zituzten pilota batzuk zeuden. Psikologoa bai edo ez erantzun behar ziren galderak egiten egon zen ordu batez. Ilargik denak ondo erantzun zituen, eta etxera bueltatu zen.

Hurrengo astean, mutila astelehenean eta asteartean agertu zitzaion. Asteazkenean, ostegunean eta ostiralean, Ilargi jolastokira jaitsi zen, izkina batean irakurtzera.

Hurrengo asteko astelehenean, neska berria etorri zen. Ilea beltza eta motz-motza zuen, eta betaurreko gorriak zituen. Oso-oso altua zen, Ilargi baino gehiago. Begi berdeak zituen, txiki samarrak. Oso polita zen. Neska horrek Maite izena zuen, Ilargiren lagun minak bezala.

Jolas-garaian, Ilargi bere txokora joan zen irakurtzera. Oinetako polit batzuk ikusi zituen. Ilargik, eserita zegoenez, begirada altxatu behar izan zuen oinetakoen jabea zein zen ikusteko. Orduan Maite ikusi zuen, neska berria:

– Kaixo! Eseri naiteke hemen, nire liburua irakurtzeko? –galdetu zuen Maitek. Ilargik buruarekin baietz esan, eta bere liburura itzuli zuen begirada. Maitek liburu bat atera zuen, eta irakurtzen hasi zen.

Orduan, Ilargi pentsatzen hasi zen benetako lagun bat izateko aukera zuela, eta berriro hitz egitea erabaki zuen. Ahoa irekitzera zihoala, mutila agertu zen:

– Ez duzu molestatutako, ezta? Berak irakurri nahi du, ez zurekin hitz egin -esan zuen mutilak. Ilargi negarrez hasi zen.

– Zer gertatzen zaizu? Lasai egon, ez zaitut gaizki tratatuko, nire ahizpa txikiak zuk bezalako gaixotasuna dauka. Badakit batzuetan zure pentsamenduek min egiten dizutela –esan zuen Maitek, lasai-lasai.

Ilargik bi aldiz pentsatu zuen. Maitek berari hitz egin zion lehenago, beraz, Maitek nahi zuelako egin zuen hori.

– Mutiko bat etortzen da batzuetan niregana –azaldu zion Ilargik.

– Hasieran, gauza txarrak bakarrik esaten zituen, baina orain hitz egiten dudana bakoitzean molestatzen dudala esaten dit –jarraitu zuen, begirada lurrean jarrita.

– Ez iezaiozu kasurik egin, mutiko hori gezurti bat da –lasaitu zion Maitek.

Hitz egiten jarraitu zuten jolas-garai osoan.

Bi aste igaro ziren, eta Ilargi Maiteren etxean zegoen. Egun horretatik aurrera ez zitzaion mutila agertu. Ez mutila, ez bere lagun mina, ez beste inor ere. Medikuarengana joan ziren, eta esan zioten Ilargik trauma bat zuela, bakardadeagatik, eta horregatik bere garunak lagunak eta pertsonak imajinatzen zituela, hain bakarrik ez sentitzeko.

Ilargi ez zegoen ez gaixo, ezta bakarrik ere.



■ C. maila • 2. saria

ITSASO AIZPURUA

.....

Zaporerik gabeko malkoak

Udaberria da, maiatza hain zuzen ere. Gainera, eguraldia primerakoa da, baina Gorkarekin egon beharrean eskolan nago, eta irakaslea pelmada ederra ematen ari da. Arbela kolore guztietako klarionez erabat beteta dauka, eta benetan jasanezina da.

Eskerrak burua beste leku batean daukadan. Izan ere, ezin naiz ahaztu hemendik bi astera Mirenen etxean dugun festaz, bertara Elisabeth, Txomin, Ander, Iñaki eta Gorka doaz, eta nesketan, lehen esan bezala, Eli, Miren, Ihintza, ni eta nire ahizpa gogaikarria, Maitane, goaz. Hiru egun igarotzea pentsatu dugu bertan. Beno, planarekin jarraitu baino lehen, nire burua aurkeztu beharko dizuedala iruditzen zait. Nire izena Malen da. Ilea nahiko luzea eta iluna dut, eta begiak urdinak. Ordizian bizi naiz nire ahizpa eta amarekin, eta nire Bobby politarekin. Bobby gol-den retriever arrazako nire txakurra da.

Guk dugun neska taldea Eli, Miren, Ihintza, Maitanek eta nik osatua da, eta guztiak lehenengo batxilergoan gaude. Esan beharra daukat baita ere, ni Gorkarekin ateratzen naizela, eta jada 7 hilabete daramatzagula. Eta festaren arrazoia da nire 17. urtebetetzea. Izugarrizko gogoia dut egun hori iristeko. Gau eta egun dudan kezka bakarra da,

nahiz eta laster azterketen astea izan. Nire pentsamendua hau da: azterketa gehiago egingo ditut, baina inoiz gehiago ez 17 urte, edo nik behintzat horrela pentsatzen dut. Mirenek bere etxean izugarritzko igerileku puska du, eta, ondorioz, dietan hasi beharko dut, zeren egingo duen eguraldiarekin seguru nago sartu egingo garela uretara. Irakasleak bere pelmadarekin jarraitzen duen bitartean, ni nire “bikini operaziorako” planak egiten hasi naiz. A zer buruhaustea! Lehenik egingo dudak gauza da jatorduz kanpo ezer ez jatea. Ondoren, gutxiago jango dut jatorduetan, eta kirola egingo dut: egunero 45 minutu korrika eta etxean abdominalak egiten hasiko naiz.

Jada aste oso bat igaro da dieta hasi nuenetik, baina ez dut ez pisurik ez bolumenik ere galtzen, eta argaldu egin behar dut igerilekuan sartzeko. Gainera, Gorka ere han egongo da, eta ezin dut onartu gantz gramo bat ere nire gorputzean... ez dut nire gorputza maite. Egunak pasa ahala, ohartzen noa argaltzen ari naizela, eta lagunek ere komentario pare bat egin dizkidate argaldu egin naizela esanez, baita Gorkak berak ere. Behingoagatik ongi sentitzen naiz nire gorputzarekin, baina ez nire buruarekin. Bakarrik sentitzen naiz, mundu guztiarengandik aldentuta, eta bihar izango da nire eguna, bihar goaz Mirenen etxera hiru egun zoragarri horiek pasatzera...

Iritsi da eguna, eta, etxetik ateratzen naizen guztietan bezala, ama izugarritzko pelmada ematen hasi zait... Ez dakit zer esan didan ere, nik burua azken bi asteetan bezala Mirenen etxean baitut. Festa horrek duen gauzarik okerreana da Maitane gurekin datorrela eta edozer gauza eginez gero amari abisua pasako diola. Baina hori bost axola zait niri. Disfrutatzea noa, eta ondoren etxera etorritakoan zigortuta egon behar badut ere, ez zait horrenbeste axola. Ezkaratzetik atera bezain laster ikusi dut Txominen autoa. Bertan igo, eta guztiok batera Mirenen etxera abiatu gara. Iritsi bezain laster, ohikoa den bezala, Mirenek Anderren besoetara egin du salto, eta, muxu bat eman ondoren, gu agurtzera etorri da. Gure logelak erakutsi dizkigu, eta erabaki dugu binaka jarriko garela logeletan. Eli eta Maitane, eta Ihintza eta ni jarri gara, eta Mirenek bere logelan lo egitea erabaki du. Mutiletan, berriz, Txomin eta Iñaki, eta Gorka eta Ander jarri dira. Behin logelak ongi antolatuta, zerbait hartze-

ra jaitsi gara guztiok sukaldera. Mirenen gurasoek oporretara joan baino lehen pare bat tarta eder utzi dituzte guretzat, eta itxura ederra duten arren, inork horiek jateko intentziorik ez duela dirudi. Gehienak hozkailutik garagardo bat hartu eta lorategira joan dira, egiten duen eguraldiaz gozatzeri. Ni, ordea, nire gelara joan naiz nire maleta desegitera. Behera itzultzeri nindoanean, leiho bat ikusi dut, eta, bertatik begiratzean, denak igerilekuan ikusi ditudanez, nik ere bikinia janztea pentsatu dut.

Bikinia jantzi ondoren, behera joan naiz, eta arropa kendu eta igerilekura sartzeri nindoala, denak begira ditudala ohartu naiz.

– Zer gertatzen da? –galdetu dut egoera arraro horren aurrean.

– Ai ene! –erantzun du bat-batean Txominek, denen ustekaberako.

–Zer egin duzu? Ikaragarri argaldu zara neska!

– Jajajajaja, hori al zenuten? –esan dut, barreari ezin eutsiz.

– Egia esan, Txominek arrazoi osoa du –gehitu du Mirenek.

Irribarre handi batekin buruz bota naiz igerilekura, eta bertan inoiz lehenago probatu ez dudana sentsazio bat probatu dut: guztiak nire gorputzarekin harriturik uztea. Eta hori oraindik gantz dezente dudala gorputzean kendu beharrekoa. Gorka ere uretara jausi da, eta nire ur azpiko pentsamenduak etenez besarkada handi bat emanez atera nau azalera. Uretatik atera bezain laster ikusi dut berak ere irribarre eder batekin begiratzen zidala.

– SSSHHH!! Zer da soinu hori? –esan zuen Elik zeharo harriturik.

– Nire sabela da! Jajajaja –aitortu zuen Anderrek, barrez.

Guztiak barrez hasi gara, eta Mirenek bazkaltzeri joateko ordua izango dela esan du gertatutakoa ikusita. Algara eta broma artean joan gara sukaldera. Neska guztion artean bazkaria prest jarri ondoren, mahaia kanpora atera dugu, eta bazkaltzen hasi gara. Amaieran, mutilak izan dira dena jaso eta garbitzearen arduradun. Gu, bitartean, geure gauzez hitz egiten egon gara.

Dena bukatu ondoren, gualdean, lñakik oso joko dibertigarri bat proposatu digu. Jokoa bakoitzak txupito edalontzi txiki horietako bat dauka,

eta jokoa honetan datza: pertsona bakoitzari txupitoaren edalontzian whiskia botatzen zaio, eta jokoa pertsona batek hasten du, berak inoiz egin ez duen gauza bat esanez “Nik ez dut inoiz inor musukatu” adibidez, eta jolasten ari den norbaitek noizbait norbait musukatu badu, bere edalontziko whiskia edan behar du. Ondoren, beste pertsona bati berak zer ez duen inoiz egin esatea tokatzen zaionean, partaide guztiek edalontzia berriro beterik dutela ziurtatu behar da, eta horrela aspertu arte... Guztioek erdi mozkortuta amaitu genuen, barre eta algaren tartean.

– Maallleeennn! –esan zuen oihuka Txominek nire izena bat-batean.

– Zer duzu? –galdetu diot

– Non da Gorka? Eta lhintza? Zergatik dago elefante bat niri barrez-ka? –galdetzen dit niri erdi balantzaka

– Txomin –diot nik erdi barrez–. Uste dut gehiegi edan duzula, eta oheratu egin beharko zenukeela.

Eta Txomini oheratzen laguntzera nindoala, lhintza eta Ander belarretan musukatzen ikusi ditut. Ez da posible! Miren Anderrekin ateratzen ari da eta! Ene bada, gaur denok gehiegi edan dugula iruditzen zait. Ander adarrak jartzen ari ote zaio Mireni? Hori, behintzat, argi dagoela iruditzen zait, baina Mirenek jakingo ote du hori guztia? Ez, ez dut uste. Eta, hoberena, nik orain biak musukatzen ikusi ditudala, Mireni zerbait esan beharko al nioke? Alde batetik, esaten badiot, erlazioa apurtuko dut, eta ni ez naiz inor beraien erlazioa motzarazteko. Anderrek edo lhintzak esan beharko lioketela iruditzen zait. Baina, beste alde batetik, esaten ez badiot, lagun bezala huts egiten diodala iruditzen zait... Orduantxe ikusi dut Gorka belarretan eserita, eta berarengana hurbildu bezain laster ikusi dut bera ongi dagoela. Bere ondoan eseri, eta berbetan hasi gara.

– Ezin duzu asmatu zer ikusi dudan –esan diot nik.

– Zer ba? lhintza eta Ander musukatzen ikusi dituzu ala? –komentatu dit niri, batere harritu gabe.

– Nola zenekien hori? Eta zergatik ez zaude harriturik? Ez dut ezer ulertzen –esan dut nik orduan, etsita.

– Mutil guztiek aspalditik genekien hori. Elik, zuk eta Mirenek soilik ez dakizue -erantzun dit, begietara begiratzuz.

Orduan, bere begietara begiraturik, bere urre koloreko basamortu itxurak bere begi horietan murgildurik, malko batek alde egin dit gaueko iluntasunean. Baina, nire ustekaberako, Gorka ohartu egin da, eta atzeko aldetik besarkada bat emanez, ea zer gertatzen zaidan galdetu dit belarrira. Momentu horretan zer egin ez jakinik, buelta eman eta besarkada sakon batean murgildurik, gorderik nuen guztia ateratzea behin erabakita, nahiz eta uste dudan alkoholaren ondorioz hartu dudala erabaki hori, gertatzen zitzaidana kontatu diot Gorkari. Dena irakaslea izugarritzko pelmada sartzen hasi zen egunean hasi zen, burua Mirenen etxeko festan nuenez dietan jartzea erabaki nuen. Baina handik aste batera, argaltzen ez nintzela ikusirik, jaten nuen guztia botatzen hasi nintzen. Hasieran menperatu nezakeen, baina azkeneko botaka egiteko beharra sortzen zitzaidan. Hori guztia kontatu ondoren, lehenago emandako besarkadak baino sakonago bat eman, eta aurpegia eskuarekin eutsiz eta begietara zuzen-zuzen begiratzuz zera esan dit:

– Nik ez dut neska perfektu bat nahi, nik zu nahi zaitut. Zure gauza on eta ez hain on guztiekin, guztiak baitzituen ni maitemindu ninduen neskak eta ez nuke ezegatik aldatuko. Hori garbi edukitzea nahi dut. Behar duzun guztirako hemen nagoela ere kontuan izan, zeren memento honetan zuri zerbait benetan larria gertatuz gero, nik ez dakit zer egingo nukeen zu gabe, zeharo txoratuta bainauzu eta arazo guztiei aurre egiteko batek baino errazago egingo dugu biok.

Hizketan bukatu bezain laster, tsunami bat izango banintz bezala hasi naiz ura kanpora isurtzen begietatik, nire masailak bustiz eta Gorkaren eskuetatik behera iritsi arte. Orduan benetan konturatu naiz, esan dizkidan hitz guztien ondoren, zenbat maite nauen Gorkak. Esan dit ospitale-
ra joatea izango dela hoberena, baina nik esan diot nahiago dudala neure kabuz saiatu, eta, ez badut lortzen, orduan joango garela.

Gau horretan, Gorkak Anderri eskatu dio mesedez logelaz aldatzeko niri. Ander ohartu bezain laster Ihintzarekin lo egingo duela, gustura asko joan da. Gelara igo garenean, bere maletatik kaxa txiki bat atera

du, eta ohe gainean eseriz niri eman dit. Ireki dudanean, gustukoen ditudan bonboi kaxa dela ikusi dut.

– Hau berez ez nizun gaur eman behar, baina esan didazunez saia-kera bat egingo duzula arazoari aurre egiteko, bonboi kaxa honekin pix-kanaka presarik gabe hastea pentsatu dut –esan dit irribarre handi batekin.

Biak ohe gainean eserita gaude, bata bestearen atzean jarrita. Berak bonboi bat hartu eta zatitxo txiki bat jateko esan dit. Denbora bat itxa-ron dugu, badaezpada ere, hurrengo zatitxoan jan arte, baina azkenean berriro ere dena botatzen amaitu dut. Askotan saiatsu gara, baina ez dugu ezer lortu. Azkenean, Gorkak arrazoi duela uste dut, eta ospitale-ra joatea izango da hoberena. Ospitalera joatea erabaki ondoren, ingesatuta nago 251. gelan. Gorka han dago nirekin egunero. Esan didate konponbidea baduela, baina nahiko larri nagoela. Psikologo batengana ere joaten naiz. Kontua da Gorkak gau hartan esan zizkidan hitz horiek nahikoak ditudala nire barnean dudak indar guztia ateratze-ko, berriz ere bere ondoan egun bat gehiago izango balitz bezala ego-teko. Ez dut psikologorik behar, ni ondo nago. Benetan maite nauten pertsonen inguratu, eta hemendik atera nahi dut, sano, besterik ez.

| Aizputxoo



■ D. maila • 1. saria

NAGORE MURIEL

Muxu bat ama

Txiki-txikitatik esan didazu musika dela nik neuk sor dezakedan mundurik perfektuena, eta sortutakoan beti izango dudala bertara bidaia-tzeko aukera. Han, nik maite eta nahi ditudan pertsona guztiak egongo direla. Musika nota bakoitza irri edo negar egiteko giltza. Edota negar egitearekin batera, irribarre egiteko aukera izango dela. Nik sentitzen dudan guztia transmititu eta nahi bezala sentitzeko aske izango naizela. Inoren menpe egon beharrik gabe. Bertan ez dudala inoren babesik beharko, ez delako erasorik egongo. Ametsetako mundu perfektua izango dela.

Nire aita dela diozun gizon horrek iraintzen zintuen bakoitzean logelara joan, atea itxi eta pianoa jotzeko esaten zenidan. Pianoko aulki txiki hartan eseri, tapa ireki, gehien gustatzen zitzaidan kanta aukeratu eta partiturak aurrean jartzeko. Momentuan sentitzen nituen sentimenduak adieraziz jotzeko. Jotzen nuen bitartean begiak itxi eta ametsetan hasteko.

Halaxe egin ohi nuen, ama. Pianoa jotzerakoan, nire belarriek ez zuten gizon hark esandako hitz gaiztorik entzuten. Zuregatik eta zure aholkuarengatik ametsetan hasten nintzen, zure printzesa txikia nintzela eta maite ninduzula sentituz. Zuk negarrak eta oihuak barnean gor-

detzen zenituen bitartean, ni munduko pertsonarik zoriontsuena nintze-la iruditzen zitzaidan.

Abesti batzuekin zaldi gainean nenbilela imajinatzen nuen, edota ahaz-tezina izan zen uda horretan pasatutako momentu guztiak etortzen zitzaizkidan gogora. Nire mundu zoragarri eta ezin hobe horretan infinitu koloretako lore eta tximeletak zeuden leku guztietan, alde batetik bestera. Eta mota guztietako jolasak, nire lagun guztiak haiekin jolasteko. Zoriontsu nintzen nik sortutako mundu horretan. Hain nintzen zoriontsu... ezjakintasunak babestu eta zoriontsu egiten ninduela, ama.

Urteetan zehar, etxeko jabearen harrokeria handitzen joan zen, eta baita ni ere. Beharbada zoritxarrez, baina ez nintzen lehengo haur txiki hura.

Zure teknika huts egiten hasi zen. Nire gelara sartu eta pianoa jotzeak ez zituen aitaren oihuak eta burlak guztiz estaltzen, eta orduan jabetzen hasi nintzen zein zoritxarreko egiten zintuen zure senarrak. Horrekin batera ere ohartu nintzen munduan pianoa jotzen, jolasten eta dibertitzen egotearekin ez nuela lortzen zu nirekin etortzea, ez ginela elkarrekin egoten lehen bezainbeste. Pianoa jotzeari utzi orduko, zu hor eta ni hemen, ez geundela batera. Zu atearen beste aldean zinen ohitura bihurtu ziren tratu txarrak jasotzen, eta ni, bitartean, piano aurrean. Pianoa jotzeak denaz ahazten laguntzen zidan, gauza bakarra izango balitz bezala. Askatasunerako bidea aurkitu behar nuen. Hatzak gelditu gabe musika sortuz egoten nintzen, bertatik ihes egin eta bizi berri bat topatu nahian. Ez nintzen gai aitari merezi zuena emateko. Nire bihotzak eusteko eta ez etsitzeko esaten zidan, baina dagoeneko hutsaren hurrengo sentitzen nintzen.

Hala ere, zuri hau dena errazago egitearren, zuk esandakoari jaramon egiten nion, amatxo. Nik pianoa jotzen jarraitzen nuen. Nire barruko amorrua kanporatzeko ihesbide bakarra eta bizitza bizitzeko modu bakarra zelako. Banekien zu lasaiago zeundela niri pianoak zoriontsu egiten zidala ikustean. Nota bakoitza arnas egiteko aukera zen. Melodia bakoitza, amets bat. Bizitzari heltzeko modu bat. Nik nahi bezalakoa ziren gauza guztiak horrela, amestea libre zen eta ametsak errealitate bihurtzea itxaropen.

Pianoko irakasleak gaitasun bereziak nituela esaten zidan, eta, nahi izango banu, pianista profesional izatera helduko nintzela. Hainbeste ordutan aritu eta gero, zer gutxiago? Bizitza erdia pasa nuen mundu ideala irudikatzen.

Egun batean, irakasleak esandakoa etxean kontatzen ausartu nintzen. Beste behin ere, mundua gainera erori zitzaidan. Irteerarik gabeko putzu sakon eta ilun batean sentitu nintzen, aitzak ideia friki eta txoro horiek alde batera uzteko esan zidanean. Pianoa jotzeak ez zidala jatekorik emango. Ikastolan gehiago saiatzeko, eta etxera nota hobeekin etortzeko.

Nire ikastolako notak ezin hobeak izan arren, beretzat ez ziren nahikoak. Ni baino hobeak zirenekin konparatzen ninduen etengabe. Ez zirudien maite ninduenik. Eta zurekin egiten zuen bezala, piano jotzaileria izan nahi nuela esatea nahikoa izan zen ni zapaldu eta pikutara bidaltzeko. Neska harroa nintzela esan zidan, eta ero-haizeak kentzeko. Aita merezi bezala zaintzeko, eta bizitza honetan zu bezain tuntuna izan nahi ez banuen, behintzat, piano txoro hori alde batera uzteko.

Orduan ere, nire begietatik negar malkoak isurtzen hasi ziren. Korrika batean piano aurrera joan nintzen bere isekak burutik kentzeko modu bakarra zelako. Ez zidan zurekin egoten uzten, eta konturatu gabe urruntzen ari ginen. Nire bizitza bizitza debekatzen zidan.

Zu gertatzen ari zen guztiaz jabetzen zinen, eta ni gelara sartu orduko, zuk aurre egin zenion. Nola ausartu zinen? Nola egin zenion aurre? Bazenekien zer gertatuko zen. Nire alde egiteagatik izugarrizko jipoia jasan beharko zenuen. Banekien min egingo zizula, baina, oraindik eta okerrago, banekien ezingo zenuela ezer egin.

Horregatik, pianoa ireki eta obrarik zailena ahalik azkarren jotzen hasi nintzen. Ahalik eta fuertean, nire munduan lehenbailehen sartzeko eta zure negarrik ez entzuteko. Orduak pasatu nituen pianoa jo eta jo. Dena isilik zegoela zirudienean, hatzak mugitzeari utzi nion. Aulkitik altxa, eta sukalderantz jo nuen. Hantxe zeunden zu. Ubelduraz beterik, lurrean etzanda.

Hilda zeunden ama, hilda. Betiko galdu zintudan. Jada ez zaude nirekin. Horregatik igarotzen dut egun guztia pianoa jotzen eta nire ondoan zaudela amesten. Gertu sentitzeko modu bakarra delako. Dagoeneko ez daukazulako besoekin ni besarkatzeko aukerarik. Baina lasai, ama, nire alboan egon gabe ere, badakit musikaren melodia leunekin batera, zauden lekuan zaudela, babesten nauzula.

Zaude ziur zuek sortu nuen munduan ez zarela inoiz hilko, eta elkarrekin jarraituko dugula zuk eta nik. Inoren beldurrik gabe.

| *Namuto*



■ D. maila • **2. saria**

NEREA BEOBIDE

.....

Berokiaren errautsak

Bigarren Mundu Gerra pasa eta hainbat urtetara ezagutu nuen Sophie. Shopie zein den? Beno, nire bizitzan ezagutu dudana pertsonarik interesgarriena, politena, hoberena. 68 urte zituenean ezagutu nuen, eta, zoritxarrez, gaixotasun nazkagarri batengatik 81 urterekin agur esan zion bizitzari, baita niri ere. Emakume ederra zen, bai barrutik baita kanpotik ere, begirada bakar batekin liluratuta uzteko zuen gaitasun hura, gris koloreko begi handi haiek, ile luze kizkur hura eta ezpain haietatik ateratzen ziren hitz goxo haiek inork ez zituen ahazten. Sorprezaz beteriko kaxa bat bezalakoa zen, misterioz betetako neska. Ikaragarri eskertzen dut bera ezagutu izana, zoragarriak izan ziren berarekin pasa nituen urte haiek, nire bizitzako momenturik hoberenak, inoiz ahazten ez direnak, alegia.

Beno, orain ni aurkezteko txanda da. Ni Lena naiz, Sophieren laguna, baina nire ama izango balitz bezala pentsatu dezakezue. 49 urte ditut, eta niri buruz ze esango dizuet ba... beno, moda gogoko dut, izugarri gustatzen zait! Baina... ez, ez zuk pentsatzen duzun moda pijoa, eza gutzen vintage estiloa? Beno, zail samarra ikusten dut azaltzeko, baina gutxi gorabehera adin jakin bat duten objektuak, osagarriak, arropa da

vintage-a. Hain zuzen ere, arropa denda bat daukat, 33 urterekin ireki nuen. Soineko zaharrak, oihal zaharrak orain modan jartzen ari direnak... sekretu ikaragarriak ezkutatzen dituzte, bizitza oso bat laburbiltzen dutenak. Orain dudana denda gazteei soineko zahar horien edertasuna erakusteko intentzioarekin ireki nuen, eta ez zitzaidan batere gaizki atera, pixkanaka ahoz aho esaten joan nintzen inguruan denda berria nuela. Soinekoak jantzi, aldagelatik atera eta ispiluaren aurrean ikusten zuten emakume berria gogoko zuten, bereziak sentitzen ziren, eta horrela lortu nituen gaur egun ditudan bezeroak.

Behin hiriko merkatura joan nintzenean, emakume baten janzkerak atentzia eman zidan: vintage estiloa zen! Bi aldiz pentsatu gabe, berarengana hurbildu nintzen zeraman soinekoa nongoa zen galdetzera. Plazan zeuden postu guztietan begirada azkarra pasatuz, azkenean iritsi nintzen emakumearengana, Sophierena alegia. Gertutik ikusi nuen, bere aurpegiak portzelanazkoa zirudien, ez zuen markarik. Gazte bat izango balitz bezala zen, ederra. Gainean zuen soineko estua hain ondo geratzen zitzaion... arrosa pastel koloreko soinekoa, bera bezain polita. Pentsatu nuen “merkatu batera soineko eder hau ekartzen badu, nolako arropa edukiko du?, hau izango al da berak duen jantzirik politena?”.

– Soineko zoragarria daramazu –esan nion nik.

– Nire bildumako soineko bat da, gazte. Gustatzen al zaizu? –erantzun zidan, irribarre polit batekin.

– Bai, ederra da. Estilo hori saltzen dut nire arropa dendan –esan nion, irribarre itzuliz.

– Zortea duzu, nire kolekzioa salgai dago. Goazen, erakutsiko dizut.

Elkarrizketa hori eduki, eta Sophie eta biok bananduezinak bihurtu ginen. Eta pixkanaka-pixkanaka gure arteko erlazioa oso berezia egin zen. Kolekzio osoa erosi nion, baina horietako bat ez zegoen salgai, beroki urdin ilun bat. Sophie esan zidan:

– Sentitzen dut, baina hau ezin dizut saldu, nire bizitzak duen gauzarik baliotsuena da, eta ez dago salgai.

Hori esan zidanetik, ez genuen denbora luze batez beroki hori aipatu, bera hil zen arte. Pertsona batzuek arropa denda batera sartzean hariak, botoiak eta lazoak bakarrik ikusten dituzte, gutxi gorabehera galtza edo blusa forman jarrita. Soineko zaharrek, ordea, lehengo emakumeen bizitzaren zatiren bat ezkutatzaren dute. Gonek, kankanek, blusek eta poltsek beste emakumeen ametsak inguratu zituzten, eta, era berean, gureak lortzen erakusten digute. Edo nik, behintzat, horrela pentsatzen dut, eta horrela erakutsi zidan Sophiek.

Egun batean, Sophie oso gaixo jarri zen, eta medikuarengana eramane behar izan nuen, okerrago jar ez zedin. Denbora luze batez probak egiten egon ziren, baina ezertarako. Medikuek kanpora atera, eta niregana etorri ziren zuzenean.

– Lena anderea? –esan zidan medikuetakok batek.

– Bai, ni naiz. Zer moduz dago? –esan nuen kolpe batez nengoen aulkitik altxatuz.

– Sophiek hau utzi du zuretzat, ezin izan dugu ezer egin... sentitzen dut –esan zidan medikuak niri karta bat emanez.

Zuri-zuri jarri nintzen, handik atera nahi nuen. Negargura jasanezina zen. Medikuari karta eskutik kendu, eta komunera joan nintzen negar batean. Kartaren zati batzuk bustita zeuden, nire malkoen erruz. Sophieren karta eta malkoz estalia? Horrek ezin zuen horrela izan. Sophiek ni nire irribarrearekin maite ninduen, argi zegoen ez zuela nik gaizki pasatzea nahi. Negar egiteari utzi, eta behingoz karta irakurtzen hasi nintzen.

Lena maitea,

Egun batzuk pasa ditut zuri nolabait hau kontatu nahian, baina ez nuen momentua ikusten. Beraz, idatzi egingo dizut. Gogoratzen nire etxe txikian dudan beroki urdin hartaz? Salgai ez zegoen jantzi zahar hartaz? Beno, Bigarren Mundu Gerran geunden, eta ume guztiak era berean jantzten ziren. 12 urte nituen ama nire ondotik kendu zidate-

nean, baina aurretik amak bazekien ez ginela berriz egongo. Orduan, esan zidan ... "Sophie, egunen batean etxean ez banago, beroki hau jantzita eraman behar duzu, momenturo, ezin duzu kendu. Badakizu ume guztiak berdin janzten direla, eta urte batzuk pasatzean berokia-rengatik ezagutuko zaitut. Gogoratu, maitea, garrantzitsua da, ez kendu berokia, zure bila joango naiz laster". Amak esan zidana ederki bete nuen urtetan, baina gerra bukatu eta ama ez zen nire bila etorri. Orain arte itxaroten egon naiz, baina arrastorik ez. Beroki hau nire arbasoek belaunaldiz belaunaldi erabili dute. Nire amonak amari, amak niri eta nik zuri ematen dizut. Beti izango zaitut bihotzean.

Maite zaitut.

Hura irakurri nuenetik jada 15 urte pasa dira, baita Sophie hil zenetik ere. Berokia nirekin urteetan egon zen. Ez nekien beroki batek hainbeste balio edukiko zuenik neure bizitzan, baina balio gehiago zuen Sophie eta bere amaren bizitzan. Hortaz, pentsatzen egon nintzen hila-bete luze batzuez, eta konturatu nintzen Sophie urteetan egon zela berokiarekin bere amari itxaroten, eta beroki gabe joateak ez zuela zentzurik. Beraz, egun batean, berokia hartu, tximinian jaso eta erretzea erabaki nuen, Sophiek bere amarekin elkartzeko aukera izan zezan.



■ E. maila • 1. saria

IXIAR IRULEGI GARMENDIA

Arnasa hartzen

Behin batek kontatu zuen... aspaldian ere beste batek esan zidan eta... noiz arte jarraituko dugu azaltzen niri ere gertatutakoa?

- Ring, ring, ring...
- Nor da?
- Irakasle-eskolako jendea atxilotu dute, ihes egin ezan!

Zer da hau? Hain azkar, nora egin ihes? Ama beti etxean egoten da, baina gaur ez dago, eta nori agertu? Esateko eran, mezua argia izan da: “azkar, azkar, arriskuan nago”.

Noraezean, korrika, larri, etxetik irten naiz eta aurrera egin dut, ez dut inor ikusi, presaka, pentsatzeko ere betarik gabe aurreko bideari jarraitu diot.

Zakar, bi besoetatik heldu, karneta eskatu, polizien plaka erakutsi eta auto batean sartu naute kale-jantzian dauden bi pertsonak.

Nora naramate? Zergatik ote? Ziur aski ikasle abertzaleak egiten ari garen bilerengatik izango dela: Euskal Unibertsitatea, pedagogia aurrerakoiak, euskara irakatsi... ai ama! Banekien nik, bai, Frankismo

garai hauetan, konpromiso politikoa garesti irten lekidakeela. Nirekin doazenei begiratu, haien itxura ikusi eta nire barruan “Itziarren semea” kantua entzuten hasi naiz. Kakalarria sartu zait, gorputza dardarka eta bista lainotu zait.

Halako batean, autoa gelditu da, eta, bizkor, Donostiako Gobernu Zibilean sartu naute. Bulego batean datuak hartu, eta eskailera batzue-tatik behera korridore luuuuze batean ezker-eskuin dauden gelatxo txi-kietako batean giltzapetu naute.

Ziegak pare bat metro zabaleran eta bi luzeran ditu, alde batean etzateko edo esertzeko edo... bakarra baitago, apal zabal baten antze-koa du eta sabaiaren erdi-erdian beti piztuta dagoen bonbilla bat. Nola jakingo dut eguna edo gaua den? Nortzuk atxilotuko ote zituzten? Nire etxekoek jakingo al dute hemen nagoenik? Zer jakin nahiko ote dute polizia hauek? Ba... nik ez diet inoren izenik esango!... Eztarria itxi zait, eta, bular aldeko larritasunak harrapatuta, ohartu naiz jokoaren legeak martxan jarriko direla.

Garrasiak entzuten hasi naiz. Ondoren, jelazko isiltasuna, barrua izoztu zait. Gertu, estutasunez, norbait botaka ari da. Belarria horman itsatsi dut, ea ezagunen baten ahotsa datorkidan... ezer ez... buila egin dut... erantzunik ez.

Nahigabe horretan nagoela, denbora luzez, burdinazko oin-hots hotzak entzun ditut. Gerturatutakoan, giltza soinu ikaragarriaz nire zie-gako atea ireki dute. Bi polizia dira, eta beraiekin gora naramate.

Bulego batean utzi naute, eta kale-jantzi-az dagoen batek esan dit dakidan guztia esan beharko dudala, komeni zaidala lehenbailehen kontatzen hastea, nire lagun guztien izenak eta non biltzen garen esa-tea, bestela berak ondo tratatuko nauela, baina...

Nik ez dut ezertaz gogoratu nahi. Zertarako? Egin duguna egin beharrekoa izan da, eta... hauek zertarako jakin nahi dute? Atxilotzeko! Ba ez, ez dut nahi beste inor hona ekartzea.

– Ez naiz ezertaz gogoratzen.

Beste gela batera naramate. Atetik sartzerakoan, bat-batean, palan- kana ur hotza bota didate burutik behera. Arnasa estutu zait, eta itola- rria sumatu dut. Babesgabe sentitu naiz, eta zerbait esan beharko die- dala pentsatzen hasi naiz.

– Euskarazko klaseak ematen dizkiet nire gelakideei.

Ez da nahikoa. Nortzuk biltzen garen eta nola izena duten jakin nahi dute.

Burdinazko pertsonaia altu, aurpegi zorrotz bat sartu da gelara. Mahai batean, buruz gora etzanda eta gerriz behera zintzilik, jarrarazi naute, urdaila justu mahaiaren alde baten ertzean gelditzen zaidala. Burdinazko pertsonaia urdailean kolpeka hasi zait. Nire barru-barrutik atera zaidan trumoiaren antzeko burrunba hotsak gela guztia bete du, eta neroni ere beldurtu nau.

– Cierra esa ventana que la van a oir.

Orain aurpegian ari zait masailekoka. Berea ez da eskua, berea ezpata da. Ez zait odolik ateratzen, baina dunba-dunba sumatzen dut buru guztian. Aurpegia hazten ari zait. Ai ama! Lehertuko zaidan sen- szazioa datorkit.

Atera naute gelatik, eta polizien tartean berriro lehengo bidetik zie- gara naramate.

– ¡Qué te han hecho chiquita!

Ezin naiz eseri, bizkarreko, urdaileko, aurpegiko, buruko oinazeaz nago, eta etzanda jarri naiz. Eskuak saihetsetan jarri ditut, eta mugitu egiten zaizkit. Hautsita ote ditut? Orain, osorik ote dudana zalantzaz, aurpegira eraman ditut, eta... ez zait eskuartean kabitzen, bikoiztuta daukat. Ispiluan ikusi nahi dut, ea komunean badagoen, pixaguraz nago. Atea gogor jo dut, polizia batek ireki dit eta korridoretik barrena bertara iritsi gara. Baldosa zurien artean, betazal puztuen tartetik globo more bat begiztatzen dut.

Mortadela bokadiloa ekarri didate. Ezin dut jan. Poliziak esan dit nire ama atarian dagoela, eta termo batean kafesnea ekarri didala. Poza

sentitu dut, nire amak badaki hemen nagoela! Joan da, eta berriro termoarekin bueltatu da. Termoa nire etxekoa da. Kafesnea bai, hori bai gustura hartu dudala, beroa, arina... gainera, jakina amak prestatua dela! Argia itzali du, eta joan egin da.

Pentsamendua bueltaka hasi zait: ez dut berriro gora igo nahi! Zer dela eta iritsi daiteke pertsona bat goikoek egiten dutena egitera? Ez da posible! Pena sentitu dut, gizakiaren miseria ikusi dut. Nola libratu munstro horietatik? Korridoreetan dabilzan polizia hauek beste begirada dute, ez dira goikoak bezalakoak eta... nire amak eskatutakoa betetzearen jokaera? Eskertuta sentitzen naiz. Baina, egitura kapitalistaren zutabe bat sostengatzen dute, etsaiak, gaiztakeriaz beteak... orduan, ni nahasteko egiten dute, joko krudeletan ari dira, edo... haiek denak gaiztakeriaz beteak eta gu denok ontasunez josiak al gara?... Iraultza egiteko denak hil behar ditugu?... Nik garbi daukat ez dudala inor hilko!... Eta, orduan, nola egin iraultza?... Dinbi-danba tiroak bezala datozkit ideiak burura. Lehertu egingo zait eta... gogoeta hau nire bizitzako beste momentu baterako utzi beharko dut.

Ilunpetan, lo hartu dut. Mugarik gabeko leku zabal, lau, argi, lasai batean aurkitzen naiz, minetik harago, gozo... betiko nahi nuke hemen gelditu... Hilik ote nago? Hau ote da elizak txikitan agindutako zerua? Jainkoa bizi zen lekua? San Pedrorik ez dago. Gogora datorkit zeruak eta lurrak zazpi egunetan sortu zituela sinesten nuen garaia, orain, aldiz eta era berean antzera, iraultzan sinesten dut, eta prest nago horretarako nire bizitza eskaintzeko, Jesukristok guregatik egin zuen bezalaxe... Baina...airea sudurretik sartzen, bularra eta tripa mugitzen ari zaizkidala ohartzen naiz, arnasa hartzen ari naiz, bizirik nago!... Orduan zer izan da hau?...Zurrunbilo honetatik bizirik irteten banaiz, nire bizitzako beste momentu bat hartu beharko dut hausnarketa honetarako ere.

Arnasa hartzen dudanean, indartu egiten naiz, botere bereziak banitu bezala. Beharko ditut, egoera honi buelta emateko, behar ditut!

Berriro korridorean oin-hots hotzak entzun ditut. Hiltegira doan bildotsaren irudia datorkit, arnasa hartzen dut eta zaldi zuri, lirain, buztan iletsuak eraginez, trostan datozela irudikatzen dut, nire bila datozela mendi goienetara joateko, hango aireak lagundu diezadan.

Mahaia dagoen bulego berera kale-jantziko beste bi munstro etorri dira. Begirada lizuna dute. Mahaian eserarazi naute, iletik heldu eta burua jiraka eta biraka ibili didate. Ai ama! Mahaia heldu diot, zorabiatu egin bainaiz. Arnasa hartu dut, eta nire zeruan nagoela pentsatu dut, lasaitu egin naiz. Haiek haragikeriaz inguratzen zaizkit, eta ni, indarberrituz, altxatu egin naiz. Mahaitik bultzaka jaitsi, makurraz naute eta ahots lehorrez horrela bi oin txikitan ibiltzeko agindu zitala eman didate. Batek ez dit altxatzen uzten, eta besteak, eskuetan makila bat duela, buruan erritmo bereko kolpe zorrotzak ematen dizkit.

Ahuldadeak eta ezinak bezainbat izuak jota nago. Behera jaisteko, poliziek besoetatik leunki heldu eta airean naramate, ezin baititut eskailera jaitsi!

Ziegan etzanda nago, arretaz arnasa hartzen eta arnasa hartzen, ez dakit zenbat denbora daramadan horrela, ez eta amesgaizto honetan. Beldurrak eta gorputz guztiko saminak hartuta nago.

Korridorean lasterka dabilta oin-hots madarikatuak. Herio intziria entzuten dut. Nor ote? Zer gertatu da?

– La muy puta se ha tirado de la ventana.

Honek behintzat aurkitu du infernu honetatik irteteko modua. Jakin nahian, komunera joateko kolpatu dut atea. Polizia etortzerako, ni hara iristerako... berandu da, ez dut ezer ikusi. Negar zotinka gelditu naiz barrua hustu arte.

Ezin dut gehiago! Zaldi zuriak trostan, ni haien bizkarrean, eskailere-tatik gora hegan goaz. Mahai madarikatua ikusi dudanean arnas hartzeari tinko eutsi diot. Munstroa atetik sartzen ikusi orduko, nire indar guztiak bildu ditut, eta tximistaren antzera begietatik irten zaidan argitasunak zerraldo utzi du, beste munstroarekin ere gauza bera egin dut. Munstroak txikitzen, kiskaltzen, burdina urtzen ikusi dut. Presaka, korridorera irten naiz. Zaldiek, beraien giltza erraldoiaz, nire lagunak askatzen lagundu didate.

Gure aurrean bide zabal argia ireki zaigu, eta bidetik barrena azkar, ziztu batean goazela zaldi horien gorputzetatik ke beltza ateratzen hasi

da, bukaezina, eta laino baten modura kiskaltzen ari diren munstroengana abiatu da. Guri ere gauza bera gertatzen ari zaigu. Gure gorputzak astintzen hasi zaizkigu, eta inguruan sortu den beltzuneak zaldien laino beltzen bidea jarraitu du; ke beltzez bete da korridorea. Ikusgarria da, txundituta gaude.

Atzera begiratu dugu, eta han ikusi ditugu burdinaren su garrak, garren ke beltza eta gerturatutako beltzune guztia bat eginez betiko gorantz galtzen. Pertsonen maltzurkeria, edozein ideologia-interesak itsututa mina egiteko prestatu eta antolatzeke ditugun ahalmen guztiak betiko desagertzen.

Gu, arretaz arnasa hartzen, arnasa hartzen, askatasunez beteta, bide zabalean barrena zerumugan bistaratzen dugun ortzadarraren aldera goaz.

Handik aurrera inoiz, inon, inork ez du horrelako gertakizunik kontatu.

| *Latza*



■ E. maila • **2. saria**

PAULE ABREGO CANDELARIO

“Nik hegan egin nahi dut”

– “Azkeneko deialdia JKF-3806 hegaldirako. Azken deialdia JKF-3806 hegaldirako. Helmuga Damasko, Siria”

Motxila bakarra daramat soinean, argazki kamera eta apunte eta pasaporte karpeta urdin txiki batean gordarik. Nire azkeneko aukera da herrialdeko egunkari garrantzitsuenean kazetari postua lortzeko. Ez dut ilusio faltsurik piztu nahi, nahiz eta inguruko guztiak oso optimistak diren lana lortuko dudalakoan, baina, hala ere, lan desberdin eta originala eginez gero, aukera nahikoak ditudala badakit.

Kontrol gune ugari eta kamera eta beste zenbait gauza direla medio, hainbat galdeketa jasan ondoren, hegazkinera igotzea lortu eta aireportuan bi orduz galduta ibili ondoren, behingoz hegazkineko eserlekuan eseri eta deskantsatzea lortu dut, beno, honi deskantsatzea deitu badiezaioket ...

Urduritasunak nire barnea asalatu du bat-batean. Ba al dakit benetan zer egiten ari naizen? Neure erabakien jabe al naiz ala lanpostu horretarako izena eman nuenean galdu nuen geratzen zitzaidan askatasun apur hori? Edozein modutara, jada berandu da atzera begiratze-

ko. Orain hegazkinean nago, nire etorkizuna baldintzatuko duen bidaia egiteko prest, eta ezerk ez dit atzerapausorik emanaraziko.

Aitortu beharra dut hegan egiteak hotzikara nahikoa sorrazten didan arren, nahiko ondo doala hegaldia. Azafata edari-orgatxoarekin pasa eta ebaki bat eskaini didanean, berriro ere edalontzia eskuetan nuela nire imajinazioa martxan jarri eta galderaz josi zait barrena, goize-rarte ikusi ditudan albisteetan Siriaren egoerari buruz aipatutakoa zein puntutaraino izango ote da egia? Zein izango da orain bertan bizitzen ari den errealitatea? Ba al dakit zenbateraino jartzen ari naizen nire burua arriskupean lanpostu ziztrin hori lortzeagatik? Itzulerarik gabeko bidaia izango al da?

Eskuak izerditan nabaritu ditut bat-batean. Pentsamendu horietatik alde egiteko asmoz, inguruan begiratzen hasi naiz, hegaldi horretan doazen pertsonetako bakoitza zein arrazoik bultzatuko ote zuen gatazka gune batera bidaiatzera asmatzeko asmoz, baina, egia esan, beharra ez den arrazoirik ez zait bururutzen. Beharra. Horietako zenbatek nahiko lukete beraien betebeharrak edo lotura horietaz ihes egin eta abia-puntura bueltatu? Gu guztietako zein dago benetan prest pantaila baten atzealdetik margoturiko errealitateari aurrez aurre begiratzeko? Geroz eta galdera gehiago datozkit burura, eta, horiekin batera, nire proiektu hautaketarekiko zalantza gehiago sortzen zaizkit. Baina nire burua azkenekoz baretzekotan, begiak itxi eta lo kuluxka bat egiten saiatuko naiz.

Pilotuaren ahotsak esnatu nau. Damaskoko aireportuan gaude jada. Bidaiari guztiek hegazkina utzi dutenean, eserlekutik altxa eta motxila hartzean irteerara abiatu naiz. Bertan dagoen zerbitzariak oilo ipurdia jarri dit: “Zorte on, zain ezazu zure burua” batekin agurtu nau.

Siriako beroak suaren moduan ziztatzen nau azalean, eta soka baten gisa itotzen nau. Ez dago ia langile mugimendurik aireportuan, gurea baita, hain zuzen, une honetan pistan dagoen hegazkin bakarra. Bertatik atera, eta ozta-ozta topatu dut nire gordelekura eramango nauen taxi moduko bat, harrizkoa ez den moduan gerra garaiko isiltasuna eta hutsunea nabaritzen baitira kaleetan zehar.

Gidariak nahiko lasai dagoela dirudi, nire harridurarako, eta autoaren aurrealdean duen familia-argazkia behatzen ari naizela, niganako interesa piztu zaio bat-batean.

– Zein informazio-agentziaren partez zatoz hona?

Ez nuen inola ere horrelako galderarik espero, ezta ere hain garbi ikusiko zuenik nire kazetari planta.

– Nola dakizu kazetari lanetan natorrela? Zerbaitek deigarriegi egiten al du nire misioa?

– Ez, gauza da jendeak aspaldi utzi ziola bertara turismo hutsa egitera etortzeari. Badakizu, duela lau urtetik hona hemen ez da opor giro. Bertara datozen guztiek beharragatik egiten dute, zu bezalako misio edo betebeharren bat duten kazetari edo kooperanteak normalean.

Beharra. Berriro ere hitz horrek burrunbatzen zuen nire pentsamendua. Hainbeste da munduan sakabanaturik dagoen falta hori, eta guk, nahi dugun oro dugunok, hain gutxi baloratzen dugun bizitza maila hori... Behingoz, arrazoia eman diezaioket amari, txikitari esaten zidanean denok eman behar dugula zerbait, gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten.

Gidariarekin elkarriketan murgildurik nagoela, autoko leihotik begiratu eta suntsitutako etxeak nagusitzen dira paisaian, baina, hala ere, oraindik ere badira beraien etxebizitzetaz goza dezaketenak. Haur asko dabilta kalean jolasean, baina bada beraien jokoetan atentzioa ematen didan zerbait. Beraien artean gerra txikitxo baten antzezpena eta ezkutaketetako jolasaren arteko nahasketa baten antzekoa dirudi: harrapatzaileak kartoizko pistola baten moduko batekin bilatzen ditu gainerakoak.

Beraien egunerokoaren entrenamendua bailitzan, beraien bizitzako egunerokoa ere islatzen dute haurtzaroko jolasetan. Orduan burura etorri zaizkit nire haurtzaroko irudiak, hain dira ezberdinak... Zertan bihurtzen ari ote gara gure gizartea?

Etxe horien guztien artean burka beltz batez estalitako emakume bat ikusten dut, oihal azpitik azaltzen zaizkion bi esku finetan nire izena

duen paper bat sostengatzen duena. Emakumeak Jamila behar du izan, egun hauetan bere etxean bizitzeko aukera emango didana. Berehala, gidariari gelditzeko eskatu eta ordaindu ondoren, emakumearengana hurbildu naiz.

Begiak bakarrik ikusten zaizkio, benetan ederrak, kafea bezain ilunak eta espresio sakonekoak. Buruaz agurtu ondoren eta hitzik esan gabe, etxerantz zuzendu gara. Ez da oso urruti bizi, antza denez, minutu pare batean atarira ailegatu baikara. Eraikuntza sinplea duen etxebizitza da, kanpotik kolore gris ilunekoa, baina barrutik are sinpletasun nabaria goa azaltzen du, egunerokorako beharrezko sukalde antzeko bat, bi su eta balde batek osatua, lauzpabost aulkirekin eta baita albo batean hiru oherekin. Ez dago askoz gehiagorik pisuan.

Jamilak egun hauetan hiru horietako zein izango den nire ohea seinlatu ondoren, honen oinean utzi ditut motxila, kamera eta paper-zorroa, eta jarraian honen gainean etzan naiz, bidaiaren nekeak eraginda lo apur bat egiteko asmoz.

Begiak ireki ditudanean, etxeko jauna ikusi dut pareko ohean etzanda, egunkaria eskuetan duelarik. Hiria esploratu eta egungo egoerari buruzko informazioa biltzen hasteko gogoz sentitu naiz orduan, ez dakit oso ondo zergatik.

– Arratsalde on, jauna.

– Baita zuri ere, gazte. Bidaia luzea izan al da?

– Bai, beno, nahiko luzea izan da, baina hegaldian zehar egindako lo kuluxkekin ez da hainbesterainokoa izan. Hala ere, ea merkatu edo gune publikorik hemendik gertu badagoen jakitea gustatuko litzaidake, bisitatu eta nire erreportajea eratzeko informazioa biltzen hasteko.

Zuzenegia izan naiz agian nire iradokizunarekin, baina, egia esan, ez dut bertan denbora luzez geratzeko gogorik. Beraz, zenbat eta lehenago lanarekin hasi, geroz eta lehenago itzuli ahal izango naiz etxera.

– Bai, kale honen amaieran dagoen plazara joan zaitezke, azoka eguna dugu gaurkoa, eta, seguruenik, mota askotako jendea aurkituko duzu bertan, gerra albo batera utziz, ohiko bizimodura itzultzen saia-

tzen dena, beraz, zoaz. Idazlana hasteko modu polita izango baita gatazka eremu baten alde hori ezagutzea.

Ondorioz, etxeko jaunaren aholkuari jarraituz, ahalik eta pisu gutxien daramadala soinean, soilik libreta eta argazki kamera hartuz, harantz abiatu naiz.

Bidean, emakume ugari aurkitu ditut, beren semeekin azokan egin-dako erosketekin etxeranzko bidean, segur aski. Baita adineko pertso-na pare bat ere, kale kantoian eserita, tertulian.

Azkenik iritsi naiz azokara. Hamar bat postu nabarmentzen dira ber-tan, nagusiki fruta, barazkiak eta esnez hornituak. Pentsatzen nuena baino jende gehiago dago bertan, segur aski datozen hiru egunetako bakealdia aprobetxatuz, erreserba gehiagoren bila atera direnak. Gerra garaian inoiz ez baita jakiten noiz izango den kalera irten daitekeen azken eguna.

– Badatoz, badatoz! Madarikatuak! Ez dute bakealdia errespetatu! Gure bila datoz! Alde egin guztiok!

Plazako eskuinaldeko kaletik agertu da gizon bat korrika, denoi ber-tatik arteteko buila eginez, eta orduan pare bat hegazkin pasa dira gainetik.

* * *

Begiak ireki, eta anbulantziako langileez inguraturik esnatu naiz. Esku-ohetatean nago, eta odola dariot soinean, zorabioa ere nabari-tzen dut, baina hau ez da nahikoa oztopo ingurura begiratzean gertatu denaz jabetzeko.

Ingurua erabat suntsituta dago, jada ez dago ez azokako posturik, ez inguruko etxerik... haizeak udazkeneko orbelak daramatzen erraztasu-naren pare suntsitu dute dena jihadistek. Ehunka gorpu azaleratzen dira arrastoen artean, baina nirekin batera ere, badira zenbait pertsona salbatu direnak. Hala ere, horietako bakar batek eman dit atentzioa.

Plazako izkinetako batean haur bat dago, gutxi gorabehera hamaika urte inguru izango dituen. Bi gorpuren inguruan dabil han-hemenka,

eta anbulantziako kideak hurbildu eta bertatik aldenarazi dutenean hasi da negar malkoetan.

* * *

Berriro ere begiak irekitzean, ohe batean etzanda nagoela konturatu naiz. Oraingoan ospitale antzeko batean nagoela dirudi, inguruan ni bezalako zauritu ugari ikusten baititut. Seguruenik konortea galduko nuen plazatik honako bidean, eta ez dakit oso ondo zer gertatu den eta zerk ekarri nauen honaino.

Orduan, nire aldameneko oheari erreparatu diot, haur bat dago bertan. Segundo gutxi behar izan ditut ezagutzeko. Lehen esku-ohean etzanda nengoelarik bere gurasoen gorpuen inguruan ikusi dudak txikia da. Zortea izan du, dirudienez, nirekin batera salbatu den gutxi horietakoa izan baita bera, bizitzan zerbaitek bigarren aukera eman nahiko balio bezala. Itxura denez, ez du zauri nabaririk, agian kolpe bat jaso duelako dago bertan, hala protokoloa probak egin beharragatik.

Umearen egoeran pentsatzen dudak bakoitzean, bihotza bitan zatitzen zait. Ba ote du orain nora joan? Ba ote du norekin egon? Zein gogorra izan behar duen istant batean gehien maite dituzun pertsonak indarrez kentzea, eta, are gehiago, arrazoa ezagutzen ez duzunean. Ez al da hori lapurreta? Batzuek beren interesak direla medio eraturako borroka honetan, bertako jendearen bizitzek baliatu eta hauekin nahi dutena egiteaz, hainbaten bizitzak goiz eta gau eramanez eta beste hainbat nora joan gabe eta umezurtz utziz. Hori al da nahi duguna lortzeko egiteko gai garena? Benetan hain geurekoiak al gara? Baina hausnarketan murgildurik nagoela, haurra niregana zuzendu da.

– Zenbaitetan amak esaten zidan gaur ez zela pistoladun gizonik etorriko, jolastera irteteko egunak utzi nahi zizkigutelako. Baina behin eta berriz ailegatu dira ezustean gure jolas egun horietan. Parte hartu nahi zutela uste al duzu? Hori izan da benetan hona etortzera bultzatu dituen arrazoa?

Oilo ipurdia jarri dit umearen pentsamenduak. Bazirudien jolasaldi horiekin amesten zuela berak, baina hauek bazetozela esaten zioten

bakoitzean, algara momentu horiek beti etsaien bisitarekin zapuztuak zirela. Kasu honetan, gainera, bera sentitzen zen beti jokoaren galtzaile.

– Baliteke -ez nuen haurrarekin guztiz zintzoa izan nahi, nahikoa edukiko baitzuen momentu hartatik aurrera jasan beharko zuenarekin eta.

– Baina beraiek zergatik joka dezakete min egiten duten jostailuekin, nik lagunekin egindako kartoizkoekin soilik egin badezaket? Zergatik dute beraiek benetan min egiteko aukera?

– Zaila da hori ulertzea... Imajina ezazu zu kaiola batean giltzaturik dagoen txoria zarela eta beraiek zaindari dauden jabeak direla. Beraiek izango dira orduan kontrola dutenak, beraiek izango dira nahi dutenean janaria eman, mugitzen utzi eta kaiolako atea ireki edo itxiko dizutenak. Bitartean, zuk jabe horiek egiten dutenaren arabera bizitzen ikasi beharko duzu, zure askatasunagatik borrokatuz. Ulertzen?

– Bai... Baina nik ez dut kaiolan bizi nahi, nik hegan egin nahi dut.

Umearen hitzek benetan hunkitu naute: “hegan egin nahi dut”. Bertatik alde egin nahi duela nabari da, bertako biztanle askoren moduan seguruenik. Izan ere, nola defendatu herri bat, norbanakoa ere defendatzeko gai ez denean? Nola aurre egin etsaiak zure lurrak bereganatu ditutenean? Hala ere, oraindik badira bertan maite dutena defendatzea-gatik borrokatzen direnak, eta, seguruenik, beren bihotzaren azken tau-padaraino defendatuko dutenak.

* * *

Nire ohekidearekin hizketaldi luze bat eduki dut, non hasiera-hasieratik kontatu didan bizitako galtzaileen jolas hori. Horrela izendatzen du berak azken urte hauetako militarren eta armaden joan-etorria. Egia esan, pentsatzeko asko eman dit, eta bere kontakizunak aurrera zihoazen heinean, komunikabideek islatutako errealitatetik oso urruti zegoela konturatu naiz.

Bertan ez dela sekula bakerik egon, ez herrialdeen ia laguntzarik, ezta gobernu askok zin egindako babesik ere. Ezer ere ez. Jaso duten laguntza bakarra haurrak aingeru zuriak izendaturiko emakumeek

emandakoa izan omen da. Ulertu dudanagatik, bost emakume frantziarrek bertako familiei laguntza eskaintzen diete, eta, zenbaitetan, hiriko hainbat gunetako haurrak bildu eta beraiekin ekintzak antolatzen dituzte.

Benetan miresgarria iruditu zait bost emakume horiek bihotzez egiten duten lana. Baina oraindik ere harrigarriagoa iruditzen zait beste pertsona askorekiko erakusten duten aldea. Batzuek munduko gune behartsuenetan beraien laguntza irribarre batzuen truke eskaintzen dauden bitartean, beraien bizitzak ere jokoan jarritz, beste batzuek diru gehiago eta gehiagoren truke begiak itxi eta belarriak tapatzen dituzte. Eta ni hizketaldi horretan konturatu naiz denbora honetan guztian ikusteko gai izan ez naizena. Nik ez dut bigarren horien parte izan nahi. Ez diot jendeari interesez margoturiko errealitate margoturik erakutsi nahi, eta ni ez naiz istorioaren zati horren partaide izango. Nire tokia bertan dagoela konturatu naiz, Rachid eta bera bezalako haur eta familiei behar dutenean laguntzen.



■ D. maila • 2. saria

URTZ ZUBIAURRE OTAMENDI

Ikusten nuen

Nik ikusten nuen Jabier, bere bibote beltz eta guzti, eta ikusten nuen berarekin mintzatzea etortzen zen emakume hori, beti ordu berean, beti urduri aurpegiak, eta nola egoten ziren solasean eskolako atarian, biak ala biak zerbaitetan murgildurik.

Eta ez zitzaidan eszena hura batere gustatzen; Jabier asko estimatzen baitut, eta badakit eskolan duen lagun bakarra naizela, hau da, besteek ez dutela hain gustuko; eta are gutxiago ama horrekin darabilena ikusi ondoren.

Baina euren albotik pasatzen nintzenetan berak keinu bat egiten zidan buruarekin: ezetz esaten zidan buruarekin. Eta lehen aldietan esaten zidan lasai egoteko, ezin zidala gertatzen zena kontatu, baina egoteko lasai. Bigarren hilabetean, ordea, nik “zabiltza kontuz” esaten niola ikusirik, ez nuela ulertzen esaten zidan. “Elena –xuxurlatzen zuen–, fidatu nitaz. Egon hadi trankil.” Baina ezin nintzen lasai egon: nola egongo nintzen lasai ikusten banituen besteen aurpegiak, marmarrak, keinuak; eta ikusten banuen ze nolako komentarioak botatzen zituen Alaine irakasle-gelan, esanez emakume hura banandu berria zela, eta presa errazegiak hautatzen zituela Jabierrek? Mesedez! Lasai-

tu beharrean amorratu egiten nintzen Jabierrekin besteen krudelkeria zela eta.

“Gelako gauzak dira”, esaten zidan pasilloan. Eta orduan ni nintzen ulertzen ez zuena. Zeren, motel, horretarako baitaude ikasgelak eta bilerak, gurasoekin lasai hitz egiteko edo, “Ostia, Jabier, telefonoa duzue!”. Eta berak gauza batzuk ezin direla telefonoz, aurrez aurre bai-zik; eta ez zitzaiola inporta besteek esaten zutena, asunto garrantzi-tsuegia zela euren artekoa e.a.

Baina niri asko inporta zitzaidan, benetan inporta zitzaidan asuntoa. Izan ere, Jabierrek lagundu baitzidan eskolan hasi nintzenean: bera izan zen eskua bota zidan bakarra; eta gero, batek daki zergatik, ondo bildu nintzen Mariarekin, Igorrekin eta besteekin (ez hainbeste Alainerekin, aspaldi baitabil bere epai zorrotzak gehiegi zorrozten, batez ere Jabierrekin, eta nik esaten diot: erratzen ari haiz, Alaine, pasatzen ari haiz, bere gauzak ditun –ez dakit zergatik; ez baitut nik zertan arreglatu).

Nik esaten nizkion gauza horiek, baina berak ezin zion emakume hori ikusteari laga. Eta eskolako atarian egin behar, gainera. Ezin al zuten beste lekuren bat hautatu? Demagun taberna bat. Edo hiriaren beste punta. Eta ezin al zuten beste ordu batean elkar ikusi? Sumatzen nuen, gainera, ez zela tratu ona ez berarentzat ezta emakume harentzat ere. Amak begi zulo galantak zituen, eta bereak baino urte gehiago jo nizkion, hainbeste ezen duda ere egin bainuen bere ondotik pasatzean, ia gaitz txarren bat izango ote zuen emakume hark.

Behin dendan ere ikusi genuen elkar. Umearekin zihoan, baina semea urrundu zela probestuz, gerturatu egin nintzaion, ez dakit ze hai-zek jota.

- Ez nauzu ezagutzen, baina...
- Bai –erantzun zidan, izututa-: eskolan egiten duzu lan.
- Begira..., ez nuke zure bizitzan sartu nahi. Soilik zuei lagundu...
- Esan dizu, ezta?
- Nork?

- Jabierrek. Gertatzen dena kontatu dizu.

Ni zer esan ez nekiela geratu nintzen. Berak begiak itxi zituen, nekakuta balego moduan.

- Ez dakit zer egin. Nire semea da. Zer egingo zenuke?

Baina zertaz ari zen galdetu behar nionean, hara non agertu zen umea “doritos” pakete batekin. Eta begietara begiratu zidan, aurpegi goxo eta irribarretsu horrekin, berak, niretzat 1. mailako ehun haurretako bat besterik ez zenak, eta ezin izan nion amari galdetzen jarraitu.

Bide batez, amak ere, umea hurreratu zela ikusirik, “barkatu” esan eta erdi-korrika ekin zion ordaintzeko bideari.

Orduan hasi nintzen gauza desberdina zela antzematen. Alegia, erratu ginela bai ni, bai Alaine, baita ikastetxeko langile guztiak ere. Eta agian gai serioa zela benetan tratatzen zebiltzana. Baina oraingoan ere ez nekien nola lagundu. Ez bainekien zer zuen umeak. Ze arazo edo gabezia klase izan zezakeen? Eta iritzi nion eskolan esan behar zuela Jabierrek egia. Esan zezala: “Ez naiz emakume horrekin ligatzen ari; umearen arazoa tratatzen baizik”.

Eta halaxe bota nion:

- Esan egia, Jabier!
- Ze egia?
- Umearena! Umearengatik dela!

Isildu egin zen, ordea.

Eta zipitzik ez hari buruz klaustroan. Irakasle gelan isil-isilik egoten zen, bizpahiru kafe ere hartzen zituen makinatik ordubeteren buruan.

Nik nahi nuen zerbait esan, guk lagunduko genion; ez agian Alaine, baina gutxienez bertan behera utzi beharko zituen bere zurrumurruak. Eta horrek bakardadera kondenatuko zuen sorgin hura.

Baina ezin, ordea, deus esan bere partez. Izan ere, bera zen umearen irakaslea; eta ezin nuen hori traizionatu. Berari zegokion kasua eskolari azaltzea. Berari kasuaren nondik norakoak ematea. Baina zer-

gatik ez zuen pauso hori ematen? Amak nahi ez zuelako? Eta Jabier beti izan da hain morala, hain etiko, hain sasiapaiz... Seguru aski psikologo paperean ibiliko zen umearekin zein amarekin. Baina, era berean, gauza bere horretan ezin laga, ezen Jabier ere bazihoan eraldaketa bat jasaten, zimurtzen hasia zen, eta sekula baino gehiago erretzen zuen, gainera.

Bere zimeltzeaz jabeturik, saiatu nintzen nire erara laguntzen, saihasbide bat hartzen. Eta jolas garaia zaintzen nengoenetan -nik ere izan baititut gaixo dauden umeak eta sinetsiezadazu: ez dago gauza okerragorik, eta okerrago ez baduzu lortzen hori plazaratzerik eta ikasgelaren eta irakasleen laguntza-, umearengana gerturatu behar nuela otu zitzaidan.

Eta segituan antzeman nuen zerbait berezia gertatzen zitzaiola, ezen ez baitzen beste umeekin jolasten. Besteak han ikusten nituen elkarrekin builaka. Baloiarekin, kaniketan, batzuetan krudel eta bortitz, besteetan xuabe eta astiroago. Ibon txikia, ordea, bakarrik joaten zen zuta-been aterpera. Bakar-bakarrik alegia.

Eta behin, jolastokira atera zenean, gerturatu egin nintzaion disimuluz.

- Zer, Ibon, ez duzu futboleko jolastu nahi?
- Ez -esan zidan.
- Eta pilotan?
- Ezta.
- Ez duzu ezertan jolastu nahi, eh?
- Ni beti nabil jolasten -erantzun zidan alai, eta beragana bildu zen eta txoko batera gerturatu.

Jolastokiko atea eta gimnasiokoaren tartean zegoen txokoa gustatzen zitzaion, batez ere. Ematen zuen mutil zaharrago bat, nire gelako bat agian. Beti egoten zen bakarriketan eta bere baitara bilduta bezala.

Nik ez nuen ulertzen nolatan zegoen hain pozik. Paradoxa galanta zen hura: hain triste ziruditen haren amak eta Jabierrek! Eta agian, pentsatu nuen, ez ziotela esan nahi, ez ziotela egia kontatu nahi. Niri bezainbeste

eragiten ziela haren irribarre eztiak. Horregatik amaren galdera hura, ez zekitelako nola kontatu, nola aurre egin lbonen gaitzari.

Nire ustez, ordea, ezin da umea arazotik kanpo laga. Haurrak parte hartu behar du bere gaitzean, ezen askotan iruditzen baitzaigu ez duela ulertuko, inozo moduko bat dela. Gogoratu, bestela, nolatan aritzen diren telebistan guraso horiek umearen gaitza dela eta ez dela haren aurrean hizketan. Deus entzungo ez balu bezala. Uste dute ez direla ezertaz jabetzen. Baina umeak ez al dira denaz enteratzen? Ez al dute ezein gauzaren zentzurik harrapatzen? Noski baietz. Guk baino gehiago agian. Eta horrela esan nion Jabierri, banekiela zertan zebiltzan, zertaz aritzen ziren berbetan eskola kanpoan, eta edozertan laguntzeko prest nengoela, baina jakin nahi nukeela zer zen mutiko gaixoari gertatzen zitzaiona.

Berak aurpegi okerra jarri zidan oraingoan ere. Eta izuturik bezala begiratu.

– Ez hadila honetan sar, Elena.

Hori soilik bota, eta alde egin zuen besterik esateke.

Ulertzen nuen igual sufrimendua gehiegizkoa zela, eta nola ez ulertu Jabierren jokabidea: ez zuen ni ere inplikatzetik nahi. Baina batek daki zergatik, ezin nion laguntzeari utzi. Nahiz eta niri ez egokitu, nahiz eta berak hainbeste aldiz errepikatu, ezin nuen Jabier bakarrik laga. Gainera, bada beste ezaugarri bat ere nigan: ezin dut ume bat triste ikusi. Beti otutzen zait gauza bera: behin izango ume, eta zer kalamitatea ezin haurtzaroz gozatu izatea.

Horregatik saiatu ohi naiz arazoak dituzten umeei erreparatzen, laguntzen, entzuten. Zer gertatzen zaien jakiten eta euren konplizitatea lortzen –askotan, eurei mina eragiten dieten haurrekin zeharo krudela izateraino.

Hori gutxi balitz, egunero ikusten nuen jolas garaian ume hori, beti leku berean geldirik eta besteekin jolastu gabe. Baloia gertu zuenean ere ez zuen deus egiten. Eta ikusten nuen, kontent itxura izan arren, bakardade itzela izango zuela barruan, nahiz eta barre egin (agian ama

ez apuratzeko). Zeren ezin ukatu bakarrizketan aritzen zela, eta eskuak ere mugitzen zituela.

Agian bere gaitza ez zen fisikoa, burukoa baizik. Agian hortxe zegoen koska; horregatik ez zuten deus esan nahi, are okerragoak baitira horrelako kasuak: inkonprenzioa, mesfida, beldurra eragitea. Baliteke horren errezeloa izatea Jabierrek, eta umearen diagnostiko egoki bat lortzeko solastatzen aritzea amarekin. Biak ariko ziren haurrari nola lagundu adosten, konponbidea izateko bidean.

Eta egunetik egunera argiago ikusten nuen arazoa, egia baitzen bere txokoan hainbat ahots desberdin entzuten zela, eta gerturatzean ez zitzaizkidan hain inuzenteak iruditzen ahotsok. Norekin ariko zen, zeintzuk ziren bere lagun ikusezinak?

Eta Jabierrek zenbat lan egingo zuen, zenbat ahalegin mutikoarekin, zeren beti izan baita zeharo eskuzabala –gehiegizko enpatia duena, agian-; eta behin amorratuta Alaineri esan nion, etika kontuak zebiltzan batean: “Utzion bakean, neska, utzion bera hainbeste maitatzeari”.

Eta ez ulertuarena egin zuen, baita beste irakasleek ere.

Baina ni tematuta nengoen zerbait egitera eta, jolas garai batean, pixkanaka, Ibonen txokora gerturatu nintzen. Ez nekien ondo ala gaizki ari nintzen, ez baitzen nire gelakoa, baina ezin nuen soportatu esku bat botatzeko gogo.

Hantxe zegoen Ibon txikia, bere ahots berezia egiten eta bere baitara bildua. Orduan ikusi nituen lehen aldiz panpina haiek bere eskuetan.

- Norekin ari zara hizketan?
- Neure buruarekin.
- Ez duzu lagunekin egon nahi, eh?
- Ez.
- Ez duzu eurekin jolastu nahi?
- Ez. Ez dut nahi hurrekin jolastu. Nahiago dut helduekin jolastu.

- Ah bai? Eta norekin?
- Amarekin, Jabierrekin... edo zurekin.
- Ah, nahi duzu nirekin jolastu. Primeran. Nahi baduzu panpina horiekin jolas gaitezke.

Berak ezezko keinu bat egin zuen.

- Ez. Nik bakarrik mugitzen ditut.
- Ba utzi niri panpina bat.

Ezezkoa berriz.

- Zergatik ez, Ibon?
- Zu hau zarelako –eta super-heroi bat hurbildu zidan. Ez dakit Batman ala Spiderman edo antzekoren bat.
- Hau al naiz ni? Muskulu gehitxo niretzat.

Berak sorbaldak goitu zituen.

- Eta nor dira besteak? Superman eta Hulk? –esan nuen nire inozentzian.
- Ez, ez. Hau Jabier da. Eta hau ama.
- Eta zertan dabiltza?
- Eskola kanpoan daude. Zutaz ari dira hizketan. Jabierrek ez du zu jokoan sartzerik nahi. Baina ez dakite nola lortu. Ez dakite zer egin.

Nik ez nion deus ulertzen, bere hitzak, bere solasa...; buruko arazoren bat zuela ez zegoen dudarik. Gaixoa! Hantxe; bere panpinekin eta gauza arraroak esaten. Hala eta guztiz ere, bere hitzei koherentzia bat ematen ari nintzen artean, gauza arraro batek eman zidan atentzioa.

- Ez duzu panpina gehiago, Ibon?
- Oraingoz ez, baina etorriko dira. Agian seigarren mailako andre hori...
- Begoña?

- Ez.
- Alaine?
- Bai, Alaine. Beste panpina bat behar dut berarentzat.
- Eta zuretzat ez?

Umeak tuntuna banintz bezala begiratu zidan. Hasperen ere egin zuen, “ze gauzak galdetzen dituzun” esan nahiko balu bezala.

Panpinak seinalatu zituen eta gero bere burua.

- Andereño -esan zidan emeki-, ni ez nago joko barnean. Ni kanpoan nago. Zuek mugitzen. Ez al nauzu ikusten, ala?

